

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

<p>Titulazioa: ERIZAINZAKO GRADUA</p> <p>Irakasgaia: IV.Practicuma</p> <p>Kodea: 26478</p>	<p>Mota: Nahitaezko kanpoko praktikak</p> <p>Eskolen kronograma: 1. lauhilekoa</p> <p>Hizkuntza: Euskara/Gaztelania</p> <p>ECTS kredituak: 30</p> <p>Maila: 4.a</p>
<p>Irakasgaiaren deskribapena</p> <p>Kanpoko praktika akademikoak unibertsitate-ikasleek egin eta Unibertsitateak ikuskatutako prestakuntza jarduerak dira. Beren helburua ikasleei prestakuntza akademikoan eskuratutako jakintzak aplikatzeko eta osatzeko aukera ematea da, erizain lanbideko jarduerak garatzeko, haien enplegarritasuna errazteko eta haien ekintzailtza-gaitasuna bultzatzeko eskumenak eskuratzen lagunduta.</p>	
<p>Sartzeko baldintzak</p> <p>IV. Practicum egin ahal izateko, II. Practicum eta III. Practicum gainditu beharra dago aurretik eta hurrengo irakasgaiak: Patologia Oinarrizko Zainketak, Farmakologia, Zainketarako Harremana eta Komunikazioa, Erizaintza Klinikoa I, Erizaintza Klinikoa II, Erizaintza Klinikoa III, Erizaintza Klinikoa IV, Erizaintza Bizi-Zikloan I, Erizaintza Bizi-Zikloan II, Erizaintzako Oinarri Teorikoak, Erizaintzako Oinarri Metodologikoak, Eriz. Komunitarioa.</p>	

IRAKASLEAK

Tel.

e-maila

Irakasgaiaren arduraduna	Tel.	e-maila
Jesús Martín Bezos	945 218056	jesus_martin@ehu.es
Practicumaren koordinatzailea		
Jesús Martín Bezos	945 218056	jesus_martin@ehu.es
Irakasle laguntzailea		
Denbora osoko irakasle-taldea		
Kanpoko tutoreak		

GAITASUN OROKORRAK

Lanbide-aurreko praktikak, txandaketa kliniko independente moduan eta gaitasunen azken ebaluazio batekin, osasun-zentroetan, ospitaleetan eta beste asistentzia-zentro batzuetan, horien bidez balio profesionalak, asistentzia-komunikazioko gaitasunak, arrazoitze klinikoak, kudeaketa klinikoak eta judizio kritikoa barneratzeko, praktika profesionalean erizaintzako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak integratuz, titulua osatzen duten helburu orokorretan eta gaietan deskribatutako gaitasunei lotutako printzipio eta balioetan oinarrituta.



Ikasleek ere beharrezko gaitasunak erakutsi beharko dituzte erizainek medikamentuen banaketa eta giza erabilerako produktu sanitarioak agintzeko, erabiltzeko eta baimentzeko. Horiek guztiak urriaren 23ko 954/2015 Errege Dekretuaren I. Eranskinean aurreikusten dira.

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Praktika aurreprofesionala garatzea, lanbidea arautzen duten printzipio legalak eta etikoak barneratuz; begirunezko jarrera batekin, egoeraren eta testuinguruaren arabera; pertsonen parte-hartzea, informazioa, autonomia eta baimen informatua sustatuz erabakiak hartzerakoan.
- G2. Norberaren ikaskuntzarekiko jarrera proaktiboa erakustea, baita erantzukizun profesionalarekiko konpromisoa ere, informazioa modu kritikoan erabiliz, jarduerari buruzko gogoeta eginez, praktika profesionala baloratuz eta aztertuz, hobekuntza-arloak proposatuz eta gauzatuz.
- G3. Arreta integrala, segurua eta kalitatezkoa eskaintzeko ahalmena erakustea, irizpen profesional argudiatuak osasun-egoera ezberdinetan identifikatuta; eta pertsonaren, familiaren edo taldeen beharrezko egokitutako zainketen aplikazioa erreferentziatzeko profesionalarekin adosturik.
- G4. Zainketen kudeaketan lidergorako trebetasunak erakustea, talde-lana sustatuta eta denbora eta baliabideak behar bezala erabilia, zainketa kalitatezkoa izan dadin.
- G5. Gaitasuna erakustea paziente, familia eta gizarte-taldeekin enpatizatu eta harreman terapeutikoak ezartzeko, komunikaziorako estrategiak eta trebetasunak erabiliz, atentzio profesional egokia emateari begira.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK

Ikaskuntzaren emaitzak Practicumaren ebaluazio txostenetan deskribatuta daude.

EDUKIAK

PRESTAKUNTZA-JARDUERA	IRAKASLEAK	ORDUAK TEORIA	ORDUAK TAILERRA
Tutoretzapeko praktikak			
Practicumaren araudia	Jesús Martín Bezos Juana Argomaniz Alutiz	2	0
Politraumatismoak dituen pertsona immobilizatzeari buruzko tailerra	Larrialdiak eta emergentziak	0	2
GUZTIRA		2	2

METODOLOGIA

Kanpoko praktika akademikootan hainbat eragilek parte hartzen dute. Lehenik eta behin, ikasleak eurak dira ikasketaren ardura dutenak, era aktiboan parte hartuz gaitasunen garapenean eta etengabeko ebaluazio prozesuan.

Gainera, ikasleen kanpoko praktikak arautzeko Euskal Herriko Unibertsitateak onartutako indarreko araudiaren arabera, beste eragile hauek ere badaude praktiketan inplikatuta:

Instruktoea (Zentroko tutorea)

Praktiketan parte hartzen duten zentro kolaboratzaileetako erizaintzako profesional bat da, Unibertsitatearekin elkarlanean, prestakuntzako jarduerak antolatzeko ardura duena.

Unibertsitateko tutorea (Irakasleak eta ikertzaileak)

Zentro kolaboratzaile batean kanpoko praktika akademikoak egiten ari den ikaslearen jarraipena egiteaz eta ikasleari laguntza emateaz arduratzen den irakaslea da.

Irakasgai honetan erabilitako ikaskuntza-metodologia oinarrituta dago arazoak konpontzeko metodo zientifikoaren aplikazioan eta gogoetazko praktika batean; horrek ikasleari laguntzen dio eskemak eta estrategiak progresiboki hartzen, erizaintzako profesional gogoetatsu bihurtzeko.

Praktiken planteamendua erizaintzako ikasleari eskainitako atentzio indibidualizatuan oinarritzen da. Ikasleak, instruktorearen eta unibertsitateko tutorearen laguntzarekin, dituen ikaskuntzako helburuak zehazten ditu ezarritako gaitasunak kontuan izanik.

Irakasgai honetako kredituak presentzialak dira erabat, 1837/2008 Errege Dekretuaren erregulazioari jarraikiz, bertan adierazten baita Erizaintzako Graduako ikasleek 2.300 ordu eman behar dituztela praktika asistentzialak egiten.

Practicumeko ikaskuntza-prozesuan, gutxienez, hiru tutoretza izaten dira:

1. Tutoretza. Praktika-moduluaren hasieran izaten da. Horretan, ikaskuntza-akordioa egiten da.
2. Tutoretza. Moduluaren erdian izaten da. Ikaslearen ikaskuntza-prozesua eta ezarritako gaitasunen lorpena baloratu eta sustatzen da, eta, behar izanez gero, ikaskuntza birbideratzen da.
3. Tutoretza. Praktika-moduluaren amaieran, ikaskuntza prozesua, ikaskuntzaren emaitzak eta Practicumaren hasieran zehaztutako gaitasunak ebaluatzen dira.

Estrategia metodologikoak:

- Azalpen-saioak ikasleei honako informazio hau eskaintzeko:
 - Praktiketako araudia.
 - Segurtasun klinikoaren praktikan. Istripuko eta gertakari baten aurreko protokoloak.
- Tailer praktikoak. Tailerretan parte hartzea nahitaezkoa da.
 - Paziente politraumatizatuaren maneia. Larrialdiak eta emergentziak ikasgaia egin ez duten ikasleek soilik egingo dute tailerra.
- Tutoretzapeko praktikak egitea, ikasleak bi errotazio egingo ditu eremu ezberdinetan.

- Ikaslearen tutoretzak instruktorearekin eta unibertsitateko praktiketako tutorearekin.

Ebaluazioa egiteko tresnak:

- Gaitasunen eta ikasitakoaren emaitzen dokumentua: ebaluazioa egiteko gaitasunak, irakaskuntza-emaitzak eta errubrikak ditu.
- Gaitasunen garapenaren ebidentzien dokumentua: dokumentu horretan ikasleak bere gaitasunen garapenari buruzko ebidentziak erregistratu beharko ditu.
- Prozedurak egiteko gaitasunari buruzko dokumentua: IV. eta V. practicumetan zehar, ikasleak prozeduren gidan deskribatutako zazpi prozeduraren akreditazioa beharko du.
- Lan akademikoak: Ikasleak egonaldi kliniko bakoitzean arrazoiketa klinikoko lan bat egingo du. Ikasle guztiek pazientearen/gaixoaren baimena lortu beharko dute jarduera hori burutzeko.

EBALUAZIOA

Ebaluazioa etengabeko prozesu bat da, eta, bertan, ikasleek gaitasunetan emandako aurrerapausoak egiaztatu eta argudioekin frogatu behar dituzte.

Unibertsitateko tutoreak ebaluatuko ditu egindako praktikak instruktorearen eta ikaslearen txostena oinarri, betiere ezarritako ebaluazio-irizpide eta -erremintak aintzat hartuta.

Azken kalifikazioa, ikasleak horretarako ezarritako tresnetan ematen dituen ebidentzietatik lortuko da.

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	EBALUAZIO-JARDUERA	% KALIFIKAZIOA GUZTIRA
G1, G2, G3, G4, G5	5 gaitasunen ikaskuntzaren emaitzak	Tutoretzapeko praktikak, ebaluazio triangelatuekin.	% 80
G3	3. gaitasuneko E2, E3, E4, E5 competencia 3	Arrazoiketa klinikoko lana.	% 20

Azken kalifikazioa 10etik 7 baino bajuagoa bada, ikasleek txosten bat jasoko dute identifikatutako hobekuntza-arloekin.

Ebaluazioan kontuan izan beharreko irizpideak

- IV. Practicum gaitasunak beteak izan beharrezkoa da eskakizun gisa identifikatutako ikaskuntza-emaitzak betetzea eta ikasketa-emaitza guztiak 5 batekin GAINDITZEA.
- Arrazonamendu kliniko derrigorrezko ebaluazio aktibitatea da, lan akademiko honen ez egiteak praktiken EZ GAINDITZEA suposatuko du.
- Praktiketako errotazio bakarra gaitasunak gero (IV. P1 edo IV. P2), hori kontuan hartuko da praktikaldi berriko matrikulaziorako plangintza egiteko.

Euskal Herriko Unibertsitateko graduko titulazio ofizialetako ikasleen ebaluazioa egiteko indarrean den araudia kontuan izanik, ikasle bakoitzak deialdi bakar bat izango du urtero irakasgai hau gainditzeko.

Praktiken %100a presentziala izango da. Bere praktiken epealdiari esleitutako denboraren %50 baino gutxiago egiten duten ikasleari Ez aurkeztua jarriko zaio ikasgaiaren aktan. Ikasleak praktikak uzten baditu %50eko edo gehiagoko epealdi bat bete ondoren, Ez gai jarriko zaio ikasgaiaren aktan.

Praktiken Batzordeak deialdi horren data zabaltzen duen erabakitze gaitasuna du. Soil-soilik salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan erabil dezake, eta, betiere, ezarritako egutegi akademikoaren barruan. Salbuespen horrek ez du eraginik deialdi honetan egin eta gainditu gabeko praktiketetan.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Ez da aurreikusi.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Arauzko uniforme eta eskalapoiak
- Erlojua segundo-orratzarekin.
- Boligrafoa, punta biribilduneko artaziak eta libreta oharrak idazteko.
- Ikasleek identifikazio-txartel bat eraman beharko dute beti, dagokien zerbitzu-erakundeak emanda edo EHU/UPVko ikaslearen identifikazio-txartela.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- * Aldeano L, Argómaniz J, Basurto S, Betolaza ME, Cariñanos S, Correyero F, et. al. Competencias de Grado en Enfermería: Practicum I-II-III-IV-V. Vitoria-Gasteiz: Osakidetza; 2015.
- * Butcher HK, Bulechek GM, Dochterman JM, Wagner CM. Clasificación de Intervenciones de Enfermería (NIC). 7. ed. Bartzelona: Elsevier;2018
- * Hinkle JL, Cheever KH. Brunner y Suddarth. Enfermería Médico-Quirúrgica. 14^a ed. Bartzelona: Wolters Kluwer, 2019.
- * Johnson M, Moorhead S, Bulechek G, Butcher H, Maas M, Swanson E. Vínculos del NOC y NIC a NANDA-I y diagnósticos médicos. Soporte para el razonamiento crítico y la calidad de los cuidados. Bartzelona: Elsevier Mosby; 2012.
- * Moorhead S, Swanson E, Johnson M, Maas ML. Clasificación de Resultados de Enfermería (NOC). Medición de Resultados en Salud. 6. ed. Bartzelona: Elsevier; 2018.

- * NANDA International. Diagnósticos Enfermeros. Definiciones y Clasificación 2021-2023. Bartzelona: Elsevier; 2021.
- * Norris TL. Porth Fisiopatología. Alteraciones de la salud. Conceptos básicos. 10. ed. Bartzelona: Wolters Kluwer; 2019.
- * Pérez Arellano JL. Sisinio de Castro-Manual de Patología General. 8ª ed. Barcelona: Elsevier; 2020.
- * Smith SF, Duell DJ, Martin BC, Aebbersold ML, González L. Habilidades para enfermería clínica. 9. ed. 1. eta 2. bolumenak. Madril: Pearson; 2018.
- * Swearingen PL, Wright JD. Enfermería médico-quirúrgica basada en planes de cuidados. 5ª ed. Bartzelona: Elsevier; 2020.

Sakontzeko bibliografia:

- * Real Decreto Legislativo 1/2015, de 24 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de garantías y uso racional de los medicamentos y productos sanitarios. BOE nº. 177; 25/07/2015 [Jasotze-data: 2018/02/10]: 62935 – 63030. Eskuragarri hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8343
- * Real Decreto 1718/2010, de 17 de diciembre, sobre receta médica y órdenes de dispensación. BOE Nº 17; 20/01/2011 [Fecha de acceso: 2018/02/10]: 6306 – 6329. Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2011-1013>
- * Real Decreto 954/2015, de 23 de octubre, por el que se regula la indicación, uso y autorización de dispensación de medicamentos y productos sanitarios de uso humano por parte de los enfermeros. BOE Nº 306; 23/12/2015 [Jasotze-data: 2018/02/10]: 121483 - 121498. Eskuragarri hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-14028
- * Real Decreto 1302/2018, de 22 de octubre, por el que se modifica el Real Decreto 954/2015, de 23 de octubre, por el que se regula la indicación, uso y autorización de dispensación de medicamentos y productos sanitarios de uso humano por parte de los enfermeros. BOE Nº 256; 23/10/2018 [Jasotze-data: 2018/02/10]: 102636 - 102643. Eskuragarri hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2018-14474

Helbide elektronikoen interesgarriak

- * EHUko liburutegi birtuala: <https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteca>
- * Elsevier Clinical Skills <https://www.elsevierclinicalskills.es/default.aspx?language=es-ES>
- * NNNConsult. Eskuragarri hemen: <https://www.nnnconsult.com/>
- * Osanet: Euskal Osasunaren ataria: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-ghhome00/eu>
- * Pubmed <http://www.ncbi.nlm.nih.gov/sites/entrez>
- * Up to Date (Sarbidetza Osakidetzako Intranetaren bidez): <http://www.uptodate.com/es/home>

OHARRAK

Izena emandako ikasle guztiek praktiketako zentroek ezarritako konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala bete beharko dituzte eta baita eskatutako eskakizunak ere.

2021/2022ko ikasturtearen hasieran ikasleek dokumentu hauek izango dute eGelan:

- Irakasgaiaren gida, gaitasunen eta ikasitakoaren emaitzen dokumentua, jarraipen dokumentua, prozedurak egiaztatzeko gida, kasu klinikoetarako dokumentu-eredua, lan akademikoaren dokumentu eredua eta jarduketa-protokoloak.